

# ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,  
ARGIA kideak gure oinarria

## OROIMEN HISTORIKOA

INGURUMENA  
EUSKALZALETASUNA  
ELIKADURA BURUJABETZA  
INDEPENDENTZIA  
PAREKIDETASUNA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilerro ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzenon artean.



Hau da hurrengo astetik aurrera berrituta etorriko den Gunea atalaren itxura.

## Gizarte mugimenduek betetako zozketen Gunea



Itsaso Zubiria Etxeberria  
@itsasozubiria

ARGIA astero etxean jasotzen duenak ongi ezagutuko du Gunea, eskaintza, opari eta zozketen txokoa; eta agian noizbait egona izango da zer edo zer tokatu zaionaren bila, bere izena sariaren baten azpian irakurriko duenaren esperantzan. Ikusiko zenuen dagoeneko, irakurle, astekaria berrituta dator-kigula oraingoan, eta Gunea bera ere ez da eraberritzetik salbu. Guztiok osatzen dugun komunitateari zuzenean lotuta dagoen txokoa balioz bete nahi izan dugu. Agian lehen begiratura deigarriena denbora aldaketa irudituko zaizu, asteroko zozketa egitetik hilabetekora pasako baita. Badauka bere azalpena. Eraldaketarako barne prozesu sakon batean sartuta gauden honetan “txikitik eragiten” daukagu lematzat, filosofia-tzat; eta eskaini nahi duguna kantitatez txikiagoa bada ere kalitatez ona izatea lehenesten dugu; balioei daukaten garrantzia emanda.

Gizarte mugimenduek beteko dute Gunea. Zozketa batean ere hartu baitezakete toki inportantea. Sariak ere

birplanteatu nahi izan baititugu. Hila-betean balio edo gai bat landuko dugu ARGIAN, eta Gunea horri lotuta joango da, guk barneko lanketa egitearekin batera gure komunitate guztiarekin elkarbanatuz aurrera daramagun prozesua. Eta zozketan sartuko ditugu jorratutako gaiari lotuta egon daitezkeen herri eragileen produktuak, herri mugimenduar-ekin elkarlanean eman nahi baititugu ezagutzera euren proiektuak.

Kanpokoak garrantzia du, bai, gure burua engainatu ere ez dugu egingo; eta horregatik egin dugu itxuraldaketa. Baina itxuraldaketa horrek edukietan sakontzearekin du zuzeneko harremana. Aldaketaz baino, eraberritzeaz ari gara: erak, moduak berritzeaz. Eta horri eskutik emanda doaz edukietan sakontzearekin batera gure balioak ARGIAko txoko guztietara zabaltzea. Balioak eta edukiak artikulatu eta ikus-entzunezkoetan landu daitezke, baina jarrera bat ere badira, eta pausu hori eman nahi dugu, gure komunitate osoarekin batera; globalean pentsatuz baina txikitik eraginez. ■

*“ARGIAk leiho bat ireki dit txaboloko paretan: borobila, gardena, barroterik gabea. Bertatik, begiratu batera, ikusezina den –eta parte naizen– gizatalde baten ibilera eta hausnarketak helarazten saiatzen naiz; ikuskera propioaz, nire neurrian, txikitik eragiten”*

Jon Mintegiaga, preso politikoa eta ARGIAko blogaria

## Zer da hau?

Orri honetan ezagutuko dugu elkar ARGIAko kideok: Harpidedunak, idazten duten sinadurak, publizitatea jartzen dutenak, kioskerok... Leiho honetatik jakingo dugu baita ere, egingo ditugun ekimen eta argitaratzera goazen produktuen berri. Iritzi truke-rako orria ere bada hau: Erredakziora heltzen diren harpidedunen gutun eta iruzkinak hemen agertuko ditugu, sare sozialetan @argia tarteko dela piztutako saltsak ekarriko ditugu eta ARGIAri buruzko ai-puak aterako ditugu.

## Proposatuz Argia Sarietarako hautagaiak

2016ko urtarrilaren 29an banatuko ditugu aurtengo euskarazko komunikazio lanik esanguratsuenak izendatzen dituen Argia Sariak. Lan-kideok osatzen dugun epaimahaia hasia da hautagaiak aztertzen. Bidali zure kutunen zerrenda harpidetza@argia.eus-era. Gogoratu alor hauetako lanak saritzen ditugula: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta ibilbide oso bat saritzen duen mere-zimenduzkoa.

## AGENDA

### Astekari berrituaren festa

Ezagutu ARGIA barrutik eta ospatu gurekin astekari berrituaren etorrera!

- Ate irekien jardunaldia: azaroaren 12an, 18:30ean Lasarteko egoitzan.